



Elkartasunaren aldeko apustua

EROSKI -K ETA HAREN BEZEROEK 3.216 TONA JANARI BAINO GEHIAGO EMAN DITUZTE BEHARRA DUTEN FAMILIENTZAT URTEKO LEHEN SEIHILEKO HONETAN

- Kopuru horretatik 2.812 tona baino gehiago EROSKIk 'Ez alferrik galdu' programaren barnean emandako janaria da; horrela, bermatzen da dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk, baizik eta gizarte erakundeei emango zaiela
- Elikagai Bankuen alde egindako elkartasun kanpainetan 404 tona inguru janari bildu zen EROSKIren saltokietan
- EROSKI joan deneko hogeitun urtean baino gehiagoan ari da FESBAlekin

Elorrio, 2018ko uztailaren 17a.- [EROSKI](#) eta haren bezeroek 3.216 tona janari baino gehiago eman dituzte, behar gehien duten kolektiboentzat, 2018. urtearen lehen seihilekoan. Kopuru horrekin, 2.040 pertsonak jan dezakete urte osoan. Dohaintza horretatik, 2.812 tona baino gehiago EROSKIk eman ditu 'Ez alferrik galdu' programaren barnean; programa horren bitartez, bermatzen da EROSKIren dendetan ez dela alferrik galduko kontsumitzeko moduko elementurik eta denda bakoitzaren hurbilean diren gizarte erakundeei emango zaiela.

"EROSKIk konpromisoak hartuak ditu gizartearekin, eta behar handiena dutenekiko elkartasuna eta ardura dago konpromiso nabarmenen artean; hori dela eta, gizarte erakundeekin kolaboratzen dugu. Aurrendariak izan gara Espainian geure sektorean supermerkatu eta hipermerkatu sare guztian janaririk ez alferrik galtzen", esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Ez Alferrik Galdu programaren medioz, EROSKIk FESBAlekin lan egiten du, Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioarekin. *"Aurten ere eskertu nahi dugu EROSKIk Elikagaien Bankuari aspalditik ematen dion laguntza. Konpromisoa erakusten du elikagairik alferrik ez galtzeko, eta, hain zuzen, hori dago bi erakundeen oinarrian",* esan du FESBAleko kanpo harremanetarako zuzendariak, Miguel Fernandezek.

Kooperatibak protokolo bat landu du emandako elikagaien segurtasuna bermatzeko. Elikagai freskoekin, esaterako, zenbait neurri hartzen ditu hotz-katea ez dadin eten ezta hartzailaren esku geratzen direnean ere; izan ere, horrek

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



bermatu behar du baldintzak zorrotz zaindu direla bai garraioan eta bai beren biltegietan.

EROSKIk baldintzarik onenetan dauden produktuak soilik eskaintzen dizkie bezeroei. Elikagai freskoren batek freskotasuna zertxobait galdu badu edo ontziren bat ez badago behar bezala (kolpetxo bat duelako, adibidez, edo bilgarria apurtu zaiolako), kendu egiten du saltokietatik, eta programa honetan parte hartzen duten erakundeei ematen die. EROSKIk ematen dituen elikagai guztiak beti daude iraungitze edo kontsumitze dataren barnean, eta kontsumitzeko egoera ezin hobean.

460 tona janari baino gehiago bildu da kanpainetan

2.000 tona janari baino gehiago eman dituzte Ez Alferrik Galdu programaren bitartez, eta beste 460 tona inguru bildu dira Kilo Operazioarekin eta Udako Bilketa Handiarekin, biak ere urteko lehen seihilekoan gauzatuak EROSKIren, Capraboren eta Vegalsaren saltokietan, Elikagaien Bankuarentzat. *"EROSKIn ohikoa denez, konpromiso honetan parte hartu nahi izan dugu, eta kontsumitzaileek emandako kiloei guztizkoaren zati bat batu diogu gehigarri gisa"*, esan du Martinez Berriochoak.

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak proposatuta eta kontsumitzaileek berek eskatuta behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakusteko.

Egindako lana aitortua dio Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, Urrezko Galburuaren sariarekin; hain zuzen, hori da erakundearen saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmentzen diren erakundeei ematen diena.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)